

Kandelario, Blas Deuna eta Agate Deuna jaiak ospatuko dituzte Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko udalerrietan. Koplen errondak, kalejirak eta bestelako ekimenak ageri dira eskualdeetako egitarauetan.

Neguko hotzaren aurrean, kantu eta jaia

-ALEX URIARTE ATXIKALLENDE

Tradizioa, ondarea eta herritarren arteko elkarlana uztartzen dituzte Blas Deunaren, Agate Deunaren eta Kandelario jaiak. Urteroko usadioei jarraituz, eske koplak abestuko dituzte han eta hemen baina, horrez gain, denetariko egitasmoz osatutako ospakizun egitarauak egongo dira aukeran.

Bermeoko Demikun, bihartik domekara bitarteko egitaraua

egongo da, auzo horretako jaiak izango baitira; besteren artean, Josepa Kale Kaleren musika, ahiezkotostada txapelketa edota mendi martxa egingo dituzte.

Amoroton, Lea-Artibaiko eta Busturialdeko egungo bertsolaririk puntakoenetako batzuk elkartuko dira zapatuan, Blas Deunaren jaietako bertso afarian. Aissa Intxausti lekeitiarra, Garazi Navarro amorotarra eta Aitor Etxebarriazarraga gernika-lumotarra ariko dira hitzordua bertsoz aberasten.

Lekeition, Musikaiak hamargarren urteurrena ospatzeko prestatu duen seigarren ekimena egingo dute domekan, Agate Deunaren jaiak ardatz hartuta. Musikaiako kide Oihana Etxabek azaldu du kalez kale kantuz ibiliko direla, Kilin Kala abesbatzagaz eta herriko musikari taldeko trikitilariekin; gainera, Lekeitioko Poto Eskolako kideak gonbidatu dituzte, musika bertsoz janzteko asmoz. Ondorengo ibilbidea egingo dutela aurreratu dute: Musikaia musika esko-

latik aterako dira; Arranegira eta San Andres auzora joko dute; Ikusgarri zinemako plazatik eta Eskolapetik pasatuko dira; azkenik, Nautikan amaituko dute.

Gernika-Lumon, Kandelario jaietako kalejira egingo dute bihar, Elai Alai dantza taldeak, SOMEko ikasleek eta Gaztea Kultur Taldeko kideek girotua. Agate Deunaren domekako kalejiran, berriz, Urdaibai Kantaguneko eta Andra Mari koraleko kideak izango dira kaleak doinuaz bustitzeko arduradunak.

Arratzun, eske koplen ibilbideetik ateratako dirua Minbiziaren aurkako elkarteari, Euskadiko P.K.U. elkarteari eta Eritasun Neuromuskularraren elkarteari emango diote dohaintzan. Ispastarren, aldiz, jasotako diruak hartzaile bi edukiko ditu: Gurutz Gorriak eta Daria Farsia elkarteak jasoko dute.

Aulestin, beste urte batez, jubilatuen eta pentsiodunen elkarreko kideak urtero egin ohi duten bileran elkartuko dira eta, ostean, talde bazkaria egingo dute.

Koplen hitzak gogoratzeko

Ibarrangelun ere, domekan egingo dute Agate Deunaren erronda, baina, hori orduko, koplen entsegu saioa egingo dute bihar, 19:00etan elkartuko dira, Kultur Etxean.

Egitarauak, herriz herri	
KANDELARIO	
Bermeo, Demiku auzoa	Bedarona (Ea)
Otsailak 2, barikua	Otsailak 3, zapatua
-11:30. Txupinazoa.	-18:00. Umeentzako Bizidantza diskofesta, BJ Kaloren eskutik.
-12:00. Meza.	-21:00. Herri afaria, txokoan.
-13:00. Luntxa eta trikitilariekin dantzaldia.	-Afalostean. Zuzeneko musika, Mirari eta Izarraren eskutik.
Otsailak 3, zapatua	Busturia
-11:30. Demikuko Mendi Martxa herrikoirako izen ematea.	Otsailak 3, zapatua
-12:00. Mendi martxaren hasiera.	-12:00. Meza Andra Mari Eleizan eta kordoen bedeinkapena.
Otsailak 4, domeka	-13:00. Tostada lehiaketa, Elizpean
-11:15. Umeentzako jolasak.	-Ostean. Trikitixa kalez kale, Etxebarria trikitilariekin.
-12:30. Josepa Kale Kaleren saioa.	-14:00. Pintxo potea, tabernetan.
-13:00. Meza.	AGATE DEUNA
-14:00. Josepa Kale Kaleren saioa.	Ajangiz
-14:30. Ahiezkotostada txapelketa: tostadak aurkezteko epea.	Otsailak 3, zapatua
-15:00. Ahiezkotostada txapelketa: sari banaketa ekitaldia.	-15:00. Mendietako plazatik, baserri baserri santa eskean.
Gernika-Lumo	Amoroto
Otsailak 2, barikua	Otsailak 4, domeka
-19:30. Kalejira Andra Mari elizatik hasita, Elai Alai dantza taldeagaz, SOMEko ikasleekin eta Gaztea Kultur Taldeagaz.	-11:30. Herrian zehar kantatzera aterako dira dantza taldekoak.
BLAS DEUNA	Arratzu
Amoroto	Otsailak 3, zapatua
Otsailak 3, zapatua	-10:00. Elizalden elkartu, eta 15:00etan Loiolan batuko dira, kantu ibilbidean; jasotako dirua Minbiziaren aurkako elkarterako, Euskadiko P.K.U. elkarterako eta Eritasun Neuromuskularraren elkarterako izango da.
-14:00. Bertso bazkaria herriko tabernan Aissa Intxausti, Aitor Etxebarriazarraga eta Garazi Navarro bertsolariekin.	Bermeo
Aulesti	Otsailak 4, domeka
Otsailak 4, domeka	-12:45-14:00. Eleizaldeko kalejira, Zaharren egoitzan hasita.
-10:30. Jubilatuen eta pentsiodunen elkarreko urteko batzarra, txokoan.	Berriatua
-Ostean. Hamaiketako kopaua.	Otsailak 3, zapatua
-12:00. Meza, Elizatxun.	-10:00. Eskola aurretik hasita, koplariak baserri baserri ibiliko dira.
-14:00. Jubilatuen eta pentsiodunen elkarreko bazkaria, Ibaigane jatetxean.	-13:30. Bazkaria. Udaletxean izena eman behar da, eta gaur da azken eguna, 15:00etara arte.
	Busturia
	Otsailak 4, domeka
	-12:00. Agate Deunaren kantak, Arroategi egoitzan.
	-13:30. Atxurkulu Hirugarren Adinekoen elkarrekoak eta txistulariak kalejiran, Axpeko elizpetik abiatuta.
	Natxitua (Ea)
	Otsailak 3, zapatua
	-11:00. Santa eskean koplakantari, Natxituko plazatik abiatuta.
	Otsailak 5, astelehena
	-13:00. Trikitilariak.
	-14:30. Bazkaria, Ermintxon. Izen ematea, Ermintxon (37 euro) hilaren 2a baino lehen.
	Elantxobe
	Otsailak 4, domeka
	-19:00. Kalerik kale Agate Deunaren koplak abestuko dituzte, herriko kaleetatik.
	Etxebarria
	Otsailak 4, domeka
	-11:00. Eskolatik irtengo da eskolaren aldeko dirua batzeko santa eskea. Herrigune eta baserrietatik ibiliko dira eguerdira arte. *Umeak heldu batez lagunduta joan beharko dira.
	Gautegiz Arteaga
	Otsailak 4, domeka
	-09:00. Eske koplak, Tabernazarren hasita.
	Gernika-Lumo
	Otsailak 4, domeka
	-12:30. Urdabai Kantagunekoak kalerik kale, Aterpetik hasita.
	-12:30. Andra Mari koralekoak, kalerik kale.
	Otsailak 5, astelehena
	-12:00. Pentsiodunek elkarretaratzean abestuko dituzte koplak.
	Ibarrangelu
	Otsailak 2, barikua
	-19:00. Agate Deunaren eguneko koplak entseatzeko saioa egingo dute ibarrangelutarrek, Kultur Etxean.
	Otsailak 4, domeka
	-10:30. Kultur etxe aurrean geralekua, herriko auzoetan zehar Agate Deunaren koplak abestuko dituzte goiz osoan.
	Ispaster
	Otsailak 4, domeka
	-10:00. Herriko plazan bilera, auzorik auzo abestera joateko.
	-14:00. Bazkaria.
	-Arratsaldean: herriguneko kaletan zehar kantu saioa.
	Lekeitio
	Otsailak 4, domeka
	-Arratsaldean. Zaletxuak elkarreko kideek kalerik kale abestuko dute.
	-19:30. Musikaia musika eskolako kideek kalerik kale koplak abestuko dituzte, musika eskolatik hasita. Kilin Kala Abesbatzakoez eta herriko musika taldeko trikitilarietz gain, Poto bertso eskolako Aissa Intxausti, Xabat Gallettebeitia eta Garazi Navarro ariko dira bertsoan.
	Markina-Xemein
	Otsailak 4, domeka
	-11:30. MAXEkoak santa eskean, Plazabaripean hasita.
	-Ostean. Kopaua.
	Mendexa
	Otsailak 4, domeka
	-12:00. Auzoz auzo santa eskean, herriko plazatik hasita.
	Mundaka
	Otsailak 2, barikua
	-11:00. Mundakako Eskolako
	Agate Deunaren kalejira, herriko kaleetatik.
	Otsailak 4, domeka
	-13:00. Mundakako Abesbatzaren Agate Deunaren kalejira, herriko plazatik hasita.
	Munitibar
	Otsailak 4, domeka
	-11:00. Herriko plazan elkarretaratzea.
	-12:00. Oizpe hirugarren adineko pertsonentzako zentroan Agate Deunaren koplak abestuko dituzte.
	-12:30. Agate Deunaren koplak, herriko kaleetatik.
	-Ondoren. Kopaua, plazan.
	*Baserritarrez jantzita joateko deia egin dute.
	Murueta
	Otsailak 3, zapatua
	-15:00. Kamiñokotik hasita, koplak abestuko dituzte.
	Mutriku
	Otsailak 3, zapatua
	-09:00. Kalerik kale eta auzorik auzo abesten irtengo dira Bertso Eskolaren gidaritzapean, Luardo Etxetik. Taldeak herritik ibiliko dira kantuan egun osoan zehar.
	Ondarroa
	Otsailak 4, domeka
	-12:00. Ikastetxeetako ikasleak kalejiran aterako dira Santa Agedaren koplak abestera.
	Sukarrieta
	Otsailak 4, domeka
	-15:30. Kantu saioa eskainiko dute Plazuelan.
	Ziortza-Bolibar
	Otsailak 4, domeka
	-09:00. Markola Guraso Elkarreko eskutik, auzoetan eta kaletan zehar eskean koplak abesten ariko dira, herriko plazatik abiatuta.